## Markina-Xemeingo Udala

**Iragarkia, Markina-Xemeingo Udalarena, Udal Ordenantzen 2017ko aldaketak behin-behinean onartzeko erabakiarena.**

Markina-Xemeingo Udalaren 2016ko azaroaren 10eko ohiko Osoko Bilkurak udal ordenantzen 2017ko aldaketa hauek behin-behinean onartzea erabaki zuen:

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAREN GAINEKO TASEN ORDENANTZA

G.6 epigrafean, mahaiak, aulkiak, zolak, loreontziak, eguzkitakoak eta antzeko instalazioak, m²ko edo zatikia eta hilea edo zatikia, 3 euro.

G.9 epigrafean, lurzoruaren aprobetxamendua okupatzen dutenei, dirua irabazi asmoarekin noiz edo noiz publizitatea egiteko, adibidez: autobusak, zirkua, eta abar, metroko edo zatikia eta eguna edo zatikia: 1 euro.

MARKINA-XEMEINGO UDAL HILERRIEN ORDENANTZA (XEMEIN, LARRUSKAIN ETA BARINAGA)

Hilobien, panteoien eta hezurtegien emakiden atalean, bereizi egingo dira hilobiak. Klaustroaren:

— Kanpokoak: 2.000,00 euro, 75 urterako.

— Barrukoak: 3.000,00 euro, 75 urterako.

HIRILURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

Karga tasa: % 10.

## Ayuntamiento de Markina-Xemein

**Anuncio de aprobación provisional de las modificaciones de las Ordenanzas Municipales para el ejercicio 2017.**

El Ayuntamiento de Markina-Xemein en sesión ordinaria de Pleno celebrada el día 10 de noviembre de 2016, ha acordado aprobar provisionalmente las siguientes modificaciones de las ordenanzas fiscales para el ejercicio 2017:

ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL

En el epígrafe G.6, mesas, veladores, sillas, pavimentos, macetas, sombrillas o instalaciones similares, por m² o fracción y mes o fracción, 3 euros.

En el epígrafe G.9, por aprovechamiento del suelo puntual o de modo ocasional, pero con un fin económico y con ánimo de lucro, por ejemplo: autobuses publicitarios, circos, etc., por metro o fracción y día o fracción, 1 euro.

ORDENANZA DE LOS CEMENTERIOS MUNICIPALES DE MARKINA-XEMEIN (XEMEIN, LARRUSKAIN Y BARINAGA)

En el apartado de concesiones para sepultura, panteón y osarios, se distingue entre las sepulturas ubicadas en el:

— Exterior del claustro: 2.000,00 euros, para 75 años.

— Interior del claustro: 3.000,00 euros, para 75 años.

ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DE VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA

Tipo de gravamen: 10 %.

cve: BAO-BOB-2016a222



ERABILERA PUBLIKOA DUTEN BIDEEN APROBETXAMENDU BEREZIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Ordenantzaren testuari honako hau gehitu zaio: 2/2013 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidaren zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzekoa, oinarri hartuta, pistak nekazaritzako eta basogintzako makinek erabiliko badute, Udalak aldez aurreko bermea ezarriko du erabilera horiek baimendu baino lehen. Horren xedea izango da zorua bere onera ekarriko dela ziurtatzea makinek kalteak eragiten badituzte pistetatik igarotzean.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA

Epigrafe hau gehitu da: obra txikiek eragindako hondakinak modu egokian kudeatzen direla bermatzeko abal bat eskatuko da, lanen % 0,01ekoa izango dena 20.000,00 euroko edota gehiagoko aurrekontuko lanetan eta 200 eurokoa, gutxienez, aurrekontu horretatik beherako obretan.

Espedienteak jendaurrean jarriko dira, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan zenbatzen hasita, interesatuek aztertu eta erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko. Hor epean erreklamaziorik aurkeztu ezean, ordea, ordenantzak behin betiko onartutzat emango dira beste iragarki bat bidali beharrik gabe Bizkaiko Aldizkari Ofizialera behin-betiko onartu izanaren berri ematen. Halaber, iragarkia udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren web-gunean ere emango da argitara. Edozein kasutan, aldaketok 2017ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean.

Markina-Xemeinen, 2016ko azaroaren 16an.—Alkatea,Juan Jose Txurruka Txurruka

ORDENANZA REGULADORA DEL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DE CAMINOS DE USO PÚBLICO

Añadir al texto de la ordenanza: «en base a lo establecido en el Decreto 2/2012, del 10 de enero, por el que se califica como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, el Camino de Santiago a su paso por la CAV, en caso de paso o utilización de las pistas por maquinaria relacionada con la explotación agroforestal, el Ayuntamiento requerirá el depósito de la garantía previa a la concesión de los permisos pertinentes, para asegurar la reposición del firme en caso de daños ocasionados por la actividad.

ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS

Se añade el siguiente epígrafe: para garantizar la correcta gestión de los residuos que se generen por las obras menores, se establece la obligatoriedad de depositar un aval por un importe del 0,01 % del presupuesto de la obra para aquéllas de un importe igual o superior a 20.000,00 euros y de 200 euros mínimo para las de importe inferior.

Los expedientes quedan expuestos al público durante el plazo de treinta días a contar de la fecha de publicación del presente anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia», dentro de los cuales los interesados podrán examinar los expedientes y presentar las reclamaciones y sugerencias que estimen oportunas. Transcurrido dicho plazo sin presentarse reclamaciones, se entenderán definitivamente aprobadas las ordenanzas, sin necesidad de remitir un segundo anuncio al Boletín. Igualmente se insertará un anuncio en el tablón municipal y en la pág. web del Ayuntamiento. En todo caso, las modificaciones entrarán en vigor con fecha 1 de enero de 2017.

En Markina-Xemein, a 16 de noviembre de 2016.— El Alcalde, Juan Jose Txurruka Txurruka